

# "PRINCIPE E VIANA"



SUPLEMENTO EN VASCUENCE  
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Coordinador para el Suplemento  
en Euskara  
MARCELINO GARDE

XVII<sup>o</sup> gn. urtea  
157 zenbakia

Iruña - 1983 - Urrilla

Fran. conc.  
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.  
Príncipe de Viana  
J. JOSE GRAU

Udazkena! Urtearen girorik ederrena! Margoz, kolorez, emaitzaz, eta fruituz, betetako aroa! Ederra da udazkena. Aberatsa!

Iñoiz baiño politagoak dira udazkenez gure mendiak, gure alorrak, gure baratzak, gure zurgaitz eta landareak. Baita gure itxas-ertzea ere.

Urrearen kolorea artzen dute gauza guztiek Euskalerrri'an udazkenez. Urrearen kolorea bait du eguzkiaren argiak berak!

Aizu!, eta iñoiz baiño goxoagoa da udazkenez eguzkiaren argia, epelagoa bere beroa, udako beroaldi zakarren ondorean. Legunagoa da aizea; bereagoa, pake-tsuagoa. bizitza.

## Udazkena

Ta arratsaldean, zeru-bazterrean, illunak ordurako menpean arturik dauzken mendien gainean, ez al dira berdin-gabeak, zoragariak, udazkeneko illunabarrak?

Ederrena ez ezik, aberatsena ere bada, urte-aroetan, udazkena. Orduntxe dira gozoak, urre-eta-gorri, zurgaitz-adarretan igaliak. Maldetako errezil-sagarrak, mendi-zokoetako gaztainak, mastietako matsondo galantak... eta baita mendizaleentzat basoetan

orbel-arteko zitza eta ontto kutizigarriak ere.... denak udazkeneko emariak ditugu.

Ederrena.... eta baita alaiena ere. Udazkena da! Gure lurralde ontan, zenbat errietan ez dira erriko jai nagusiak udazkeneko egunen batean egiten? San Migel dela, edo San Martin dela, edo beste edozein santu dela.

Eta aro ontan pestarik egiten ez duten errietan ere, ez al da alaitasunez udazkena ospatzen? Udazkena! Otordu oparoak egiteko denborarik ederrena! Udazkenez egiten da tolairetan sagardoa. Udazkenez Getari-inguruan txakoliña. Udazkenez Araba'n eta Napparroa'n ardoa. Ta ez al dira ardoa eta ardoaren beste aide oiek, gizonaren biotza alaitzeko gauzarik egokienak?

Udazkena, zartzaroaren irudia da.

Eta mailla ontan, erakuskizun ederra ematen digu udazkenak: zartzaroa gauza tristea ez dela; bizitzaren ondar illuna ez dela. Zartzaroa ederra dela. Ez dela ituna. Alaia dela. Aberatsa dela.

Bere bizitzan zintzoa izan den gizakumearen zartzaroa, urte naro baten udazkena bezain ederra, alaia, eta aberatsa da. Baita bere bizitzan okerra izanda, okerkeri aietaz damutu den eta okerkeri aien ondorio gaiztoak zuzendu dituen gizakumearen zartzaroa ere.



## DIPUTAZIOAREN ERABAKIAK



### BIDETAKO SAILLA

**URALDIAK.** Joan den Agorrilla'ren uraldian napar-iparraldeko bideek artu zuten kaltea konpontzeko, 152 milloi pezeta erabaki ditu. Diputazioak. Lanak bereziki, Iruña'tik Irun'erako bidean eta Lekunberri'tik Ernani'rakoan. Goizueta'ko urbi-ilean; eta beste bidetan ere, au da: Betelu, Baztan, Bera, Aralar eta Leitza'koetan, eta Igantzi ta Aranatzeko bide-asieran.

### EZIKETAREN SAILLA

**BERA.** Alzate karrikan dagon Erriko Etxea berrizatzeko lanengatik, 3.946.931 pezetaren laguntza.

**ARANATZE.** Erriko Elizaren aldare-buruen berriztatzeagatik, 233.000 pezetaren laguntza.

**ETXARRI-ARANAZ.** Ederti ta Kultura ekintza batzuegatik, 50.000 pezetaren laguntza.

**AURIZPERRI.** Ederti ta Kultura ekintza batzuegatik, 15.000 pezetaren laguntza.

**DONEZTEBE.** Ederti ta Kultura ekintza batzuegatik, 18.000 pezetaren laguntza.

**ZARAGOZA** edo **ZALDUBA**'ko Unibersitateari, 3.280.000 pezeta, Iruña'ko Maisu-Eskola Nagusiak Euskeraren Irakasketan uxatzen duenarengatik.

### MENDITAKO SAILLA

**GORRITI.** Bost mille pezetaren trukez leku bana, 17 uso-leku alokatzeko baimena.

**ARISTEGI.** Lau urtetarako Ormatxulo'ko uso-txabola alokatzeko baimena, 50.000 pezetaren trukez urte bana.

**ARESO.** Denetara 99.000 pezetaren trukez, 22 uso-leku alokatzeko baimena.

**SALDIAS.** Eize-barrutia bost urtetarako alokatzeko baimena 100.000 pezetaren trukez urte bana.

**ESTERIBAR.** Zubiri, Eugi, Urtaşun, Agorreta, Saigos eta Osteriz erriei, eize-barruti bat elkartarik egiteko baimena.

**ETXARREN** (Arakil'goa). Lau urtetarako 2 uso-txabola alokatzeko baimena, biak 25.000 pezetaren trukez urtean.

**BARAIBAR.** Datorren Martxo'ko azken egun arte 27 uso-leku alokatzeko baimena, 15.000 pezetaren trukez leku bana.

**ARTZE.** Arrieta, Iriberrri, Saragueta, Lusaqueta eta Urrobi-Urdiroz lur berezietako eize-barrutia, bertako Eizlari-Elkartasunari uzteko baimena.

**IRURE.** Lau urtetarako eize-barrutia alokatzeko baimena, 20.000 pezetaren trukez urte bana.

# EUSKAL ERRIKO LEIOA

## NAPARROA'KO KULTURA-JAIETAN, 85.000 LAGUN ERIBERRI'N

Urte oroz izaten dira Erriberrin Kultura-jaialdiak, ain zuzen ere Aldundiko «Príncipe de Viana» Elkarteak antolatutrik.

Ilabete osoan izan dira ospakizunak, guztira EUN baiño geiago: ikuskizunak, ikastaldiak, erakusketak, musikaldiak, eta beste geiago. Eta oiek guztiak erazten, 22 milloi ta 400.000 pezta txautu dituzte.

Entzun-ikustera ta ikastera joan direnak, guztira 84.600 lagun izan omen dira. Zenbat euskaldun ote ziren aien artean? Eta zenbat euskaldun napar gelditu dira joan gabe, euskal-kutsurik aurkitu ez dutelako?

## EZTABAIDA GOGORRA, UROLDEAK DIRELA-TA

Uroide izugarri aiek kalte handiak egin zituztel, iñork ez du ukatzen. Baiña «aseguruek» eta abarrek, nolako laguntzak eman bear dituzte? Or dago koska. Zergatik gertatu ziren? Erreka ta ibaiek gainezka egin zutelako, ala eurite izugarriak izan zirelako?

Ibaian gainezkatzea izan ba'zen,

kalteen erdia edo gutxiagoko laguntza emango diete. Eurite izugarrien ondorioz izan ba'ziren, berriz, laguntza audiagoak. Eta ortan dabil borroka, batzuek alde batera ta besteek bestera.

Euskalerrin'ko Legegintza-Biltzar edo Parlamentuak, Eusko Jaurlaritza edo Gobernuak, Euskalerrin'ko Unibersidadeak, e. a., neurritz gorako euriteak izan zirela, erabaki dute. Milla urteren buruan izan ez diren eta izango ere ez diren bezain eurite handiak zirela esaten bai-dute.

Milloi askoren gora-beera jokaten da erabaki ortan. Eta Espaini'ko aseguroak ez daude Euskalerrin'ari laguntzeko. Itxurak direnez, ibaien ondoan eta urietan bizitzetik, mendietara bidali nai gaituzte euskaldunak, berriz ere artzai biurtu gaitezen. Ori elkartasuna baldin ba'da...

## BIDE BELDURGARRIAK

Bideetako eguneroko eriotzak ez dira bukatzen. Oraingo ontan, Gazteiz'ko senar-ematze bikote bat izan da, bere iru alabekin, bizia galduta gelditu dena; bost eriotz batera, Teruel'go lurraldeetan, ango Andorra izeneko erri batera irixteko asmoekin berebillean zijoazela.

## Elizondo'ko Abesbatza'k irabazi



Ego-Afrika'ko Roodepoort irian, Elizondo'ko Abesbatzak, bi lenengo Sariak jabetu ditu

Elizondo'ko abesbatza itzuli da Afrika'n zear ibilli ondoren. Ango uri nagusi den Roodepoort'en eraturako Txapelketan aritu ondoren, bi lenengo ta bi sari ederrekin gañera sarien jabe egiñaz.

Aidean zear egazkiñak Madrid'en lurra artu aurretik, an zegoen zai Elizondo'tik joandako autobus bikaña,

era bat apainduta gañera; ta beste apaingarrien artean an zeuden txintxilik baserri-ogiak, gaztak, lukainkak, ta ongi betetako zato-ardoak; ta eserileku bakoitzean, aritz-ostoak zorionak adierazten.

Benetan zorion ugariak ba Baztan'go abeslari trebe oiei, eta batez ere, Eraso Olaetxea'tar Yon zuzendari denari.

## EMAKUME NAPAR BAT, NOBELA BATEN ARDATZ



Antoinette Buckinx Luykx, beljkar idazle il berria

Azpilkueta'tar Maria, Xabier'ko Franzisko Sainduaren ama, emakume euskaldun jatorra, eleberrri edo nobela baten ardatz dugu.

Beljika'ko alaba zen Antoniette Buckinx-Luykx idazlea, izkuntzaz flandararra ain zuzen. Orain il da 80 urte zituelarik. Bere bizitza luzean 60 liburu idatzi ditu ta 8 seme-alaba ekarri munda. Ez da edozein izan!

Euskalerrria asko maite izan zuen flamandar emakume orrek. Loiola'ko Inazio Doneari buruz, bi liburu ditu idatzirik, eta Xabier'ko Franzisko dela, beste bat. Orain 30 urte etorri zen Xabier eta inguruak ezagutzera, amets batekin etorri ere: Xabier'ko Aundiaren amaren bizitza gai artuta, kondaira bat idatzi nai izuen.

Baiña ezin: ez dago agiririk, kondaira egin aal izateko. Zer egin zuen orduan? Emakume napar euskaldun ura gai artuta, eleberrri edo nobela bat idatzi zuen: «*Ama baten nobela*», alegia.

## JAINKOA BIZI OMEN DA

Bai Jaunak, bai. Bizi omen da Jainkoa.

Enkuesta edo ikerketa bat egin berria da Ipar-Amerika'n. Eundik larogeita amabostek (%95) Jainkoa sinisten dutela erantzun dute.

Ikerketa ori Ipar-Amerika'ko Laterri Alkartuetan ez ezê, beste Laterri edo Estadu batzuetan ere egin da.

Irlanda'n ere % 95'k erantzun dute Jainkoa sinisten dutela.

Europa'ko Lurraldeetan, % 75'ek sinisten dute Jainkoa badela. Sinismenik urrirenko Laterriak Frantzi eta Dinamarka dira, baiña bada lurralde auetan ere, bai orixe, sinismena. Dinamarka'n % 58 sinistunak dira; eta Frantzi'n, % 62.

«Beste munduko» bizitzan ere sinisten du jendeak. Ipar-Amerika'n, % 71'k. Europa'n %43'k. Japon'en, %40'k.

Infernua badela, Ameriketa'n % 67'k sinisten dute. Europa'n, % 23'k, Japon'en % 15'ek.

Gizon-emakume arteko gorputz-arremani buruzko mandamentuak bearrezkoak direla sinisten dutenek auethek ditugu: Frantzi'n % 32, Ipar-Amerika'n, % 51, Alemani'n, % 61.

Frantzi'ko ikur-itza edo «lema», «*Libérté, Egalité, Fratérnité*», «*Askatasun, Berdintasun, Anaitasun*», izan da ango Iraultzaren geroz.

Ikur-itz ortatik zer duzu atsegiñagoa «*askatasuna*» ala «*berdintasuna*» galdetzen zuen ikerketak. Erantzuna: % 72 amerikarrek, «*askatasuna*»; Europa'n, «*askatasuna*» erantzun dutenek % 49 izan dira. Españi'n eta Itali'n geienek, «*berdintasuna*» aukeratu dute.

Guri, azkeneko galdera orrek Euskalerrri'ko Iparraldeko bertsolari arren ateraldi bikaiña dakarkigu burura:

**Liberté, égalité, fraternité!**  
**Ai iru gezur oiek egia ba'lite!**

## SALABURU'TAR PELLO NAPARRAREN IKER-LANA

Baztan'go euskera zer-nolakoa den ikertuz, idazlan luze ta zabala aurkeztu du Gasteiz'en, Unibersidade-maillako Irakasle-agiria lortzeko.

Mixelena'tar Koldo irakaslearen gidaritzapean, iru urtez lan egin du Arizkun'go seme den Salaburu'tar Pello jaunak. Leioa'ko Unibersidadean irakasle da izkuntza ta albistaritza gaietan, eta 32 urte ditu.

Gasteiz'en aurkeztu du bere tesis edo iker-lana, jaun-andre auen aurrean

## Etxarri-Aranaz'ko Abestaldea Tolosa'n



Etxarri Aranaz'ko Abesbatzak bi Medailla irabazi ditu Tolosa'n

### ZUZENDARIA:

Francisco Villanueva

26 emakume

24 gizon

Duela 70 urte sortu zen Parroki Abestalde gisa. Geroago, 1973'gn. urtean, Exea de los Caballeros'ko IV'gn Jaialdian, 2'gn. Saria; eta Tolosa'ko Abestaldeentzako Euskal Abestiaren V'gn. Leiaketan, 1'engo Saria eta Urrezko Medailla, abots zuriz.

Berriz, Exea de los Caballeros'ko V'gn. Jaialdian 1974'gn. urtean, Leen Saria eta Urrezko Medailla, eta Abestaldeentzako Euskal Abesti VI'gn. Txapelketan Euskal Abestalde onenaren Sari Berezia.

Torrevieja'ko Habaneras eta Polifoniarren Txapelketan, 2'gn. Saria.

Aurten, Tolosa'n, XV'gn. Nazioarteko Abestaldeentzat Leiaketan, Gregoriano Saillan 2'gn. Saria, eta Folklore Saillan, 3'gna.

Aurrera beti Etxarri-Aranaz'ko abeslari bikainak!

ain zuzen ere: Mitxelena, Sarasola, Maite Etxenike, Antonio Tovar eta De Rijk holandarraren aurrean alegia. Zorionak, Pello!

### ZINE-ARTISTAK ERE EUSKALDUN IZATEAK ARROTURIK


Baztan aldean zine bat egiten ari izan dira, izen edo deituraz «*El blanco*», artezkari edo zuzendari, Steven Frear delarik. Azpi-jokuetan ain trebe diren «*ganster*» oietako baten biziera adieraziko du.

Zine-artisten artean bat, Fernando Rey ibilli da. Eta ona zer dion gizon onek: bera ere euskalduna dela jatorriz, ama Irun'go zuenez gero, eta abizen euskaldun aukeratuela: Arranbillet, Zaragueta ta Aizpurua.

Garai batean inork ez zuen euskaldun azaldu nai dutenez, andik edo emendik euskal-kutsuren bat billatzen dute.

Obe da onela. Aintzakotzat artzen gaituzte beintzat. Bazan garaia.

### POLONIA'KO WALES, SALTZAILLETZAT SALATUA



Lech Walesa, Polonia'n azkatasunaren alde borrokalaria, «Nobel Pake-Sari Aundia'z ornitua»

Nobel aundiaren izeneko Pake-Sari nagusia opa izan diote Walesa'ri, giza-eskubideen aldeko lanean, indarkeriarik gabe jokatu duelako.

Baiña Polonia'n bertan eta kideko nazioetan, gezurrezko salaketa aundiak egin dituzte, Lech Walesa izeneko sindikalista au gaizki uzteko asmoz.

Polonia'n beintzat, bere aberriaren saltzaille dela esanez, itsusitu nai izan dute ekintzaille trebe onen izena.

Eta gauza oberik eziñean, iseka ta «txixte» direlako bidez oinperatu nai izan dute langille saiatua. Baiña orrela jokatuz, askoz lotsagarriago gelditu dira Polonia'ko jauntxoak, beren izena geiago zikindu ta itsusituz, Walesa langillearena baiña.

## AITA SANTUAREKIN,

## FELIPE GONZALEZ



Felipe González Espainiako Lendakariak, bere emaztea den Carmen Romero Andrearekin, bisita egin diote Aita Santuari

Erroma'n izan dira Felipe González eta bere emaztea, ain juxtu ere Urrilla'n. Eta aldi berean Aita Santua'rekin mintzatzera ere joan ziren. Argazkian ageri dira iruak.

Ordu-erdiko elkar-izketa egin zuten iruek soil-soillik, ez bitarteko ta ez itzultzaille, beste inor gabe. Zer esan ote zuten? Felipe González jaunak ondorenean aitortu duenez, auxe pentsatu bear dugu: Eliza'ko Agintaritzaren eta Madril'go Agintaritzaren artean, adiskidetasunezko artu-emanak dituztela orain: «*Eta aurrera ere alizatea itxaro dut, ez direla ain onak esaten ba'dute ere talde batzuek*».

Felipe González berak gero esan duenez, Aita Santuak eta biek elkar-izketan erabillitako gai nagusiak, iru aukerak ziren: Ezkontza-austea, Aur-galtzea ta Eziera-lege berria. Ain zuzen ere, iru gai aukerak dira Elizaren eta Estaduaren arteko artu-emanetan arazorik sakenak eta alderdi biak batera ez datozenak.

Eziera-legeari dagokionez, Elizaren eta gurasoen eskubideak daude zalantzan, benetako askatasuna lotzen duelako. Eta batez ere gai ontan elkarren aurka daude Elizaren eta Estaduaren iritziak. Nola-nai ere, Felipe González jaunak itz eman du, ezierako aukera ez-berdinen edo pluralismoaren aurka ez dutela ezer egingo.

Bestalde, iritzi au atera du Felipe Gonzalez'ek Aita Santua nola-koa den adierazteko:

«*Jendeak bereganatzeko indar aundia duen norbait oso berezia da Aita Santua; eta orain, Aita-Santutzaren eragiña ta ezagupidea alde guztiera zabaltzea lortu du Juan Paulo II'garrenak*».

Azkenik, Aita Santuaren laguntzaille nagusienekin ere izketaratu zen Felipe González: Agostino Casaroli, Eduardo Martínez Somalo (au Logroño'koa da) ta Achile Silvestrini gotzai jaunekin. Aukerak dira, noski, Elizaren eta nazioetako arazoak zuzentzeko arduradun bereziak eta aukerako elkar-izketan argituko zituzten eztabaidako arazoak.

# Acido urico: gizonezko gauza da...



## MEDIKU ZAARRA

Gaitz au asko ari zaigu ugaritzen mundu zabalean. Emakumeetan baño geaigo agertzen da gizonetan; emakume bat gaitzdun ikusi ordu-rako, emeretzki gizonezko ikusten dira gaitz onek jotakoak.

Gaitz onekin, janariak daukate zer ikusi aundi, eta baita ere bakoitzaren bizimoduak; alegia, geldi ego-teak eta gutxi ibiltzeak ere, gaitz onen laguntzalle bait ditugu.

zuztarrak botatzen dituzte, eta orduan egunak eta asteak badaki irauten, ta or ikusten dira gaitz onek jotakoak, beren liraintasuna galdurik.

Ta gaitza bizkar-ezurretan ezarrita baldin ba'dago, erabat makur-makur zutik, zuzen-zuzen jartzeko gauza ez direla.

Gaitza bizkar-ezurretan batzuetan; besteetan, gure gorputzeko edozein giltzaduretan agertzen da, bai okalondoan, bai belaubean, sorbaldan, txorkatilla edo txurmioan, baiñan ugarien agertzen den giltzadura, eskuetako beatzen giltzaduretan izaten da. Asiera batean aunditsua ta miñarearekin batera, gorri-gorri ta bero-bero; ta ezin mugitu izaten dira, miñak gale-ratzen duelako.

Gaitza menderatu bearrean indartzen joaten baldin bada, laixter asten dira beatzetako artikulazio edo giltzadurak bere onetik aterata ikertzen, onako ar-gazki auek agertzen duten bezala.



Argazki bikain auetan anitz ongi ikusten dugu nola joaten den aurrera «ácido úrico» orrek ekartzen duen gaitza

Gaitz onen ikuturik gabe arkitzen da bat, bere odolean % 3-5 mgr. *ácido úrico* eukitzen dituenen; esan leike % 6 mgr. daukanak gaitzdun dagola.


Gaitz au nola agertzen da? Egunetik egunera geitzen ari zaigun gaitz au, artikulazio edo gorputzaren giltzaduretan agertzen da, lendabizi minbera eta ondoren aunditasuna ta askotan gorritasuna; mugitu utsarekin miña geitzen dela.

Geienean polliki-polliki, astiro-astiro egiten du bere azpi-lana, baiñan beste batzuetan bat-bateko joaldia izaten da, batez ere ankako beatz lodian sortzen denean. «Gota» izenarekin ezagutzen da egoera larri ori.



Gaitza beatzetako giltzaduretan

Gaitza berria denean, egun gutxi barru bere onera etortzen da, batez ere sendagai berezi batzuekin lagunduz gero; baiñan gaitzak zar antzekoak direnean,



Beatzak okertzen, gaitza indartzen

Ta gaitza indartsu ta zartzen denean, garaiz bear diren sendagaiak artu ez direlako, orduan, or gelditzen dira beatzak erabat okertu, ta eskua bera ere oso itxirik, eskua zabaltzerik ez dela, emen doan irudi batean agertzen den bezala, eskuak ezertarako gauza ez direla.

Gaurko egunetan, sendagai bereziak, eta oso onak aukeran arkitzen dira; ta sendagai oiek garaiz artuz gero, gaitzak ez du jarraitzen bere azpi-lanean, eta orrela luzaroan sendagaiak artzen direnean, beatzak eta eskuak ez dira alperrik galtzen.

Jakin bezate, bada, gaiz onen ikuturen bat duten guziek, odolean ze-neurriran arkitzen den *ácido úrico*, gai ori izaten bait da gaitzaren sortzallea; odolean ez dedilla igo % 6 mgr.'tik gora.



Gaitza zaartutakoan, eskuak alperrik galduta

Asiera asieran esan dugu, batez ere, janariak direla gaitz onekin zer ikusi aundia dutenak; orrengatik emen ezartzen ditugu, janari zerrenda batzuk, jakin dezagun egoera bakoitzean zer jaki jan eta zer jaki utzi jan gabe:

**Acido Urico ASKO-ASKO duten janariak (+++):**

gibela, giltzurriak, txekor-erreta, urdaizpikoa, antxoa, sardiña, almeja ta mejilloiak.

**Acido Urico ASKO duten janariak (++):**

babarrunak, illarrak, garbantzuak, lentejak, erbia, ollaskoa, txekorra, beia, olloa, arkumea, untxi edo konejua, muñak, txolinga, lukainka, txistorra, «jamón de York», bakallaua, berdela, lenguado, legatza, langostinoa, langosta, e. a.

**Acido Urico ZERBAIT (+):**

bildotxa, atuna, mero, xapua, zigala ta ganba.

**Acido Urico UTSKERI BAT edo BATEZ (-):**

esnea, arrautza, aza, alkatxofa, azelga, ogia, ardo gutxi, arroza, patata, fruta guziak (sagarra, udarea, platanoa, larantxa, eta gañekoak).

Eta gaitza janariekin zuzentzen ez denean, sendagaiak artu bear dira; baiñan, garaiz; bestela, bein giltzadurak aunditu ta beatzak okertzen asiz gero, betirako izaten bait da.

## XABIER ZUBIRI, FILOSOFO AUNDI BAT

Donosti'n jaio zen Xabier Zubiri 1898'gn. urtean eta 1983'go irailaren 21'en il zen Madril'en. «*Cementario Civil*» deitzen dioten ille-rrian eortzi edo illobiratu zuten irailaren 22'an, *baiña ez zibilitez*, batzuek aditzera eman duten bezala, benetan kristau-giroan baizik. Izan ere, bizitza osoan kristaui ta arreta aundiz bizi izan bai-da.

Madril'go Unibersidadean irakasle zen 1926'gn urteaz geroztik, orduan irabazi bai-zuen leiaketaz. Filosofia ta onen inguruko jakintzak ziren Zubiri aundiaren ikasketak-gai ta bere irakasketakoak ere bai. Unibersidadean irakatsi ta liburuetan idatzi duena, filosofia gai artuta izan da beti. Baiña ez aize berrien eragiñez aldatzen den oietako filosofi-mota aldakorra. Ain zuzen ere orrengatik baztertu izan dute askok: ezin-eramanez batzuetan eta ulertu ere ulertzen ez zutelako besteetan.

Filosofiaz sakonki ta oraingo garaiei zegokien eran idazteko, beste jakintza-sail askotan ere asko ikasia genuen Zubiri donostiarra: Matematika ta Fisika, Bizijakintza edo Biologia, Sortaldeko izkuntzak, Antziñako kondaira, e.a., adibidez. Idatzi dituen liburak, gazteleraz idatzi ditu, irakaskintza alaxe ematen zuelako Madril'en.

Baiña donostiar onek bazekien euskeraz mintzatzen eta aaztu



Xabier Zubiri, euskal filosofo ospetsua

gabe gordetzen zuen euskera, azken-udaldietan Ondarrabi'n ederki adierazten zuenez. Euskeraz, idazteko aiña landutzera, ez zen eldu, tamalez, beti kanpoan bizi zenez.


Liburu sakon auek idatzi zituen: «*Izadia, Kondaira, Jainkoa*», «*Sobre la esencia*», eta azken-aldian giza-ezaguerari dagozkion iru liburu egoki. Orain, berriz, «*Jainkoarekiko arazoa*» gai arturik, liburu berri bat burutu-zorian zeukan. Arinkeriak barra-barra idazten

ibilli danik, ezin esan dezake iñork. Idatzi baiño asko geiago, pentsatu ta ausartu egiten zituen arazo sakonak.

Atomo-indarrari dagozkion asmaketa arrigarriak burutu zituen Albert Einstein alemaniarra: oso ezaguna zen munduan 1930'gn. urte ingurutik. Ain zuzen ere 1931'n, mintzaldi bat egin zion jakintsu-talde aukeratu bati. Bere iritziak azaltzen ari zelarrik, arbelean idatzi zituen zenbait izki ta zenbaki. Eta jakintsu-taldeari begira onela esan zuen: «*Ziur aski, zuetako iñork ez du ulertu, zer esan nai dutan nik. Baiña Zubiri'k bai ta beste iñork ez*».

Ortatik kontuak atera, garai aietan ere zeinzen buru argiko agertu zen. Gizon arrigarria izan da alde askotatik begira: bere jakinduria, bere idatzi sakonak, buru argi ta zorrotza, bere apaltasuna ta bere kristautasun bizi ta sutsua. Ain zuzen ere ori guztiagatik da arrigarriago ta txalogarriago, baiña orretxegatik aaztutat utzi ta baztertu nai zan dute jakintsu-usteko askok.

Goian bedi Zubiri jakintsua. Eta euskaldunok jakin dezagula Zubiri-ren jakinduria xurgatzen, geureganatzen eta euskeraz ematen. Egokiera ona izango da Euskalerriko Unibersidadea, Zubiri-ren irakaspennak zabaldu ta erriratzeko.



# BERTSUK JARTZEN NAIZ ASI KOPATUAZ TA GUZI, NAI DITUBENAK IKASI.

Bertsuak jartzen naiz asi kopiatuaz ta guzi, nai ditubenak ikasi. Afrika aldera oraingo aldiyan gazteri aundiyak duazi; diote adiderazi, ez dela juan biar igesi; amak negarrez daudezi.

Erriyeta jarri nota esperuan dagola flota enbarkatuzeko tropa; deitu dituzte lizenziatuak, *excedente* ta kuota; eman fusil eta arropa, balaren artera bota, etzaizkiyo asko gusta

Izar-dun oiek poztuta, beti aurrera kenduta, orai geldi dira oztuta; ameka urtitan irabaziyak egun gutxitan galduta. Denak badute diskulpa, bañan ez dago anztuta jefe zenbaiten konduta!

Triste gelditu dirade, makiñatxo bat nerabe, eben aitarikan gabe; oriyen amak senarrak galdu, neskak ez nobion jabe; ezkar egin dute galde, oiek utzita egin alde, denak pensaketan daude.

Artu manta ta motxilla, juana bada asko milla moru artera Melillá; eben buruan defenditzeko matxetia ta fusilla; ogei urtetan mutilla, obediente ta umilla, bizi jokatzen dabilla.

Galdu lengo terrenuak, armamentu modernuak, gostiak gure reinuak; bai eta ere galdu dituzte besteen seme tiernuak; ai zer lotsa gobiernuak, ematia rifeñuak gure tropari frenuak!

Asi ezkerotzitan sutan negarrak naziyo ontan, uste det geien lekutan. Ama triste oiek gau ta egun eben semiak burutan; aziyag eben petxutan, il dira sufrimentutan salbaje aien eskutan.

Asiya naiz adbertitzen gaxuak nola dabilzten atakian elkar iltzen. Soldadu oien ama tristiak, egon zaitezte aditzen; gau eta egun sufritzen, nola zeraten aritzen gerrako seme azitzen!

Gazte elegante lirañak, bai eta goxo mingañak, enganatzeko rifeñak; soldaduak mendiyen utzi eta eurek erriyan azañak, eben buruari mañak, kobratuz paga bikañak, alderdi ona dauka España'k!

Asko ama española ikusten det badagola, negar franko dariyola; anparo gabe Afrika'n galdu bere entrañako odola, martirizatu orla, pena au zenbat edo nola ezin det neurtu iñola.

Gaxuak balan artian, gaur Afrika'ko partian, moruekin, atakian; pena aundiyak utzita juanak bakotxak eben etxian; dabilza malamentian gostiak ogei urtitan, ez ortarako ustian!

Mantxatu da miliziya, kulpa gabe ta guziya. Argi bedi maliziya; inozente askok kulparik gabe galdu dute eben biziya. Artu biar da klareziya; baldin ba'da fiñeziya, egin bedi justiziya!

Seme maitiak faltatu, ezin dituzte billatu, Jainkuak detzala anparatu. Prisionero salbaje aien artian denak gertatu, zer ote ditu pasatu? Iñoiz al ba'du eskapatu, izango du zer kontatu.

Españi'ko soldaduak, zuri, seme onraduak, leialak eta brabuak; zer defenditzen den jakin gabe Afrika'ra bialduak, an gerrillan zabalduak, gose-egarriyak alduak, asko betiko galduak.

Arruit, Zeluan ta Nadorrak, ango odol-galtze gogorrek, gorriturik daude lurra. Ango kontuak aditu eta bat artutzen du beldurrak. Ez dira noski gezurrak; egaztiyak ta txakurrak txupatzen illen ezurrak.

Egiya ezin det isildu; beltzak zuri asko il du, jendiak ziñetan min du; martirizatu aien arimak ez daditezen an galdu, biotzez gaiten umildu, Jaun Zerukuari agindu bere ondrat detzan bildu.

Asko aman seme brabo Afriká juana badago, galoi-dun oien anparo; jaun oriyeri serbitu biar, eskaporikan ez dago; nora dirade juango? Ogei urtetan soldado, miliziarra esklabo.

Beltzan sarrera zorrotzak, egin diguzte destrozak, milla asko eriotzak. Nola jarriko ziran, ondolik juan diran aien biotzak, ikustian ala gorputzak, utziyak moro ferozak, eben anaiak ill-otzak?

Orra gerran ondoria; gure gazteri floria desastre ortan eroria; triste oientzat eskatzen dizut, zeru ta lurran Jabia, beste munduan gloria, zorian pare gabia, Afrika'n baño obia.

Bete besuak galoiez, zillar ta urre-kolorez... agindu modu gogorrez; artu ta eraman gure semiak azitakuak dolorez; ez dute eskatzen faborez. Batek nai ba'du eta ez, lur-bustitzera odolez!

Zori gaiztozko markallak, aietan egin batallak, galdu floreko galaiak; oien gorputzak ikusgarriyak artuak daude usaiak, il ta utziyak lasaiak, aiek enterratu naiak, juan dira eben anaiak.

Gure reinuak nastia, bat anztu gabe bestia, au da bizitze tristia! Urriki zaite zere umiaz zu, Jaun Zeruko maitia, gutaz oroitu zaitia, ontan artzazu partia, lenbailen jarri pakia.

Eman arma ta trajia, Afrika'ra barajia, mutiluak korajia; kristaudadian izenarekin, gizon iltzera biajia! Moro edo salbajia, ura da aien parajia, Jaun Zerukuak lajia.

Triste oriyen galera... Orai nua esatera nola dituzten atera: aita eta amaren ondotikan, bosterik, iru iltzera! Oien paga zer ote da? Erituta, ospitalera; il gizajuak, lurpera.

Onekin dijua azkena, nik betetzen det ordena amatxo batek emana; gerra ontako sentimentuak zabaldu guziyongana; etorri gazteri dena, eraman papertxo bana, Afrika'ko oroipena.

AFRIKA'KO GUDARENA

PABLO YANTZI

# Pablo Yantzi bertso

EGI'TAR BI

Lesaka'n-da, Igantzi'n-da, Gipuzkoa'ren mugako Naparroa'ren errialde aietan, askok eta askok izango dituzte oraindik gogoan Pablo Yantzi'ren bertso alai gozoak. Ez bait da oraindik denbora asko mundu ontatik joan zala.

Donosti'n il zen 1962'an, Azaroa'ren 30'ean.

Antxe, Donosti'ko uri berdingabea, igaro zituen azkeneko egunak, Pepito bere semearen etxean. Arras atsegiña izan zitzaion Donosti'ko bizimodua. «*Au yakin izan ba'nu, sei urte leno etorri biar nun onat*», esaten omen zion semeari, onek idatzi duenez.

Jaio, berriz, Igantzi'n jaio zen Pablo Yantzi Petrikorena; 1882'ko Otsailla'ren 4'ean. Bere aita ere bertsolaria izan zuen. Eta txistularia. Gizon famatua.

Gogor lan egin bearra tokatu zitzaion umetan Pablo gure bertsolari oneri. Amaika urterekin asi bait zen lanean, Eskolmendi'ko meatzetan. Etxetik lau ordu zeuzkan lan-tokira. Bâ, egunero, joan etorri, oñez egiten zuten bide ori aita-semek. Zortzi orduko ibilladia! Saria..., 25 sos! «Xueldoa».

Ezkondu ta geroz Lesaka'n bizi izan zen. Ameriketara ere bi aldiz izana zen, ezkon aurretik. Arjentina'n aurrena; zaldi-ezitzen. An, «*vasquito lindo*» esaten omen zioten, ain bait zen itxura ederreko mutilla! Gero, Kaliforni'n eta inguru aietako bazterretan ibilli zen, ordea, bigarren aldiz Ameriketara itzuli zenean. Ardi-zai. Eta euskaldunen artean bertso kantari eta akordio-joka. Pelotan ere, eskuz-esku eta bi biren aurka, txapeldun atera zen artzaien artean. Boxeolari izateko asmotan ere ibilli zitzaigun. Eta yayotasun aundia omen zuen ortarako, izugarritzko indarrez gainera. Semeak dioskunez, berak bakarrik errez jaso omen zuen bein batean bi mutil gazteen artean ezin jaso izan zuten gurdi-ardatz astuna bere bi kurpilla eta guzti.

«*Beti izan zun nere aitak gerri miarra, bizkarra zabala, esku-mutur lodia ta indar aundia. Ta oso mutil ederra zelakoz, ango yendiak erraten zion: el vasquito lindo*». Pepito'ren itzak dira. («*Auspoa*» 77).

Pablo Yantzi nolako bertsolari bikaiña zan ikusi dezazun, Afrika'ko guda lotsagarriari jarri zizkion bertsoak dakarzkizut gaur. Indar aundiko bertsoak dira, bertso-

larien erara esaera laburrez ta zorrotzez tajutuak.

Bertsolarien izkera, orrelako izan oi da: laburra, giarra, zorrotza, bizkorra, alperrikako txatxukeririk gabekoa.

Aizkoraren kolpearekin kidatuko nituzke beren bertsoen lerroak. Aizkoraren kolpeak bezalaxe azkarrak bait dira, oartu ordurako bata bestearen atzetik gainera datozkigunak; zuzenak, bere tokira zalantzaketarik gabe arin dijoaztenak; sarkoiak, biotzaren muiñeraino sartzen direnak. Eta askotan, baita mingarriak ere!

Mingarriak izan ziren españiar sasi-abertzaleentzat, Yantzi'k 1922'an, Irun'en Afrika'ra zijoazten gudari batzuk ikusi ondorean, abestu zituen bertso auk. Galerazi egin zioten jendearen aurrean bertso oiek kentatzea, eta papelean argitara ematea! Orregatik, luzaroan ixilik gorderik egon ziren bertsolariaren kolkoan. Ez, ala ere, ain ixilik; lagun-arteetan maiz kantatzen bait zitun Yantzi'k.

Bertso auk gudaren aurka euskaldun pake-zale batek eta euskaldun militarismuaren gorrotzaille batek jaurtitako oi mingarriak dira.

Gudaren gaitzak adierazteko badiu ziri egokiak; adibidez, 21'garren bertsoan, Afrika'ko kartzelero beltzen artean katigu gertatu diren biziera gogorazi nai ditugunean:

**Prisionero salbaje aien  
artian denak gertatu,  
zer ote ditu pasatu?  
Iñoiz al ba'du eskapatu  
izango du zer kontatu.**

Edo 14'garrenenan, ildakoen zori txarra begien aurrean ipintzen digunean:

**Arruit, Zeluan ta Nadorrrak,  
ango odol-galtze gogorrak!  
Gorriturik daude lurrak!  
Ango kontuak aditu eta  
bat dira noski beldurrak:  
egaziak ta txakurrak  
txupatzen illen ezurrak...**

Bertsolariek, bertsolan luzeetan, badute bi edo iru gogai, aria bezala artu-ta, bertsoen barnea, noiz-beinka kanpora agertuaz, erabiltzeko oitura. Arri aberatsez egingdako lepoko baten barruan aria egon oi den era berean, bat edo bi, edo iru pentsamentu ezarri oi dituzte bertsolariak bertso guztien batasuna egin dezaten. Pentsamentu oiek, bein da berriro gogorazten dizkigute kantatzen ari diren denbora guztian. Musikalariek bein



Lesaka erri ederrean jaio zen Pablo Yantzi Petrikorena bertsolaria (TELLETXEA argaz.)

# aria (I)

da berriro azalera agertzen diren gai oiei «leit motiv» esaten diete.

Gure bertso-lan onek ere baditu bi «leit motiv»: bata, *Afrika'ko guda aren arrazoigabekeria*; bestea, *guda artara eramandako mutilen amen oñazea*.

Lenengoaren gaia, 7'gn., 8'gn., 10'gn., 11'gn. eta 13'gn. bertsoetan darabilki zuzen-zuzenenean. Baiña, aipatu digu aurretik, 4'garrenen, *gudara dijoazten mutilak, gudara daramazkinari asko ez zaizkiola kosta esaten digunean*. Eta 5'gnean., *borrokan dabilten gazte aiek «ortarako ustean» ogei*

*urtetan aziak ez direla izan, esaten duenean; eta 6'garrenen:*

**Zer defenditzen den jakin gabe Afrika'ra bialduak...**

Bederatzi garren bertsoan, au geiago:

**Kristaudadean izenarekin, gizon-iltzera biajia...**

Eta 12'garrenen, ofizial gazteek neska rifeñekin alper-solasean agertzen dizkigunean:

**Gazte elegante liraiñak, bai, eta goxo mingañoak engañoatzeko rifeñoak...**

«Egin bedi justizia...!» oiugiten du 13'garren bertsoan, orrenbesteko zikinkeriz nazkatuta.

Bigarren gaia, bereiziki 19'garren eta 20'garren bertsoetan zabalitzen du. Baiña, begien aurrera, aurreneko bertsoetik dakarkigu:

**Amak negarrez daudezi...**

Laugarren bertsoan onela dio:

**Soldatu oien ama tristeak egon zaitezte aditzen:**

**gau eta egun sufritzen, nola zeraten aritzen gerrako seme azitzen!**

Eta 5'garrenean:

**Pena aundiyak utzita joanak bakoitzak bere etxian...**

Zazpigarrenean:

**Asko aman seme brabo Afrika'ra joana dago. Eskaporikan eztago... Ogel urtetan, soldado; milizlara esklabo...**

Eta 11'garrenean:

**bai eta ere galdu dituzte besteen seme tiernuak...**

Amazazpi garrenean:

**nola dituzten atera aita t'amen ondotikan, bostetik iru... iltzera!**

Eta 21'garrenen:

**Seme maitiak faltatu ezin dituzte billatu... Jainkuak ditzala anparatu!**

Baiña, obeki, irakur itzezu zuk orain, astiro, presarik gabe, gozatuaz, Yantzi'ren bertso tinko auek.



## Asis'ko Prantzisko Deunari eskaria

Prantzisko Umbria'koa, doaiez betea, ur on, lorearen, baita otso gaiztoaren lagun ongille, eguzkiaren ta illargiaren anaikide bioztun, santu begiralea...

Zure arrabitaren ots biziak, ederrik abestiratu eban danen anaitasuna, abots guztien berezko Yainkotasuna.

Prantzisko, txorien eres entzule, laguna, ederdurazko zerubideen sortzalea, apaltasunean erroturiko alduna.

Sar zaitetz gizartean, atoz gure etxera, zabaldurik maitasunezko alkar-bidea eta, onegaz bat-batera, gure euskera.

**MUNITEG'I'TAR SABIN.**

## Nere aitari

PEPITO YANTZI

**Seme batentzat aita da beti maite bear gendukena; ta, zoritxarrez, aztuta askotan ibillitzen geradena. Beti elkarrekin bizitzea da gauzikan ederrena; zu juan zinan mundutik-eta ezin kendu detan pena! Bertsuan bidez egin nai nuke aita zanan oroipena.**

**Aita maitea, il zinan eta nere biotz barruan arantza aundi bat sartuta dago, irtengo ez dan moduan. Zenbat aldiz lagundu zirazun beti daukat nik goguan. Orain zeruan arkitzen zera; ni, berri, emen munduan; gero betiko izango gera biok elkarren onduan.**

**Pablo Igantxi zan nere aita, euskaldun benetakua. Ameriketara izandu eta berriz etorritakua. Bertsolari amorratua zan ta euskeraren aldekoa. Zurearentzat izandu zera beti biotz onekua; argatik Jaunak utziko dizu santuen bizi-lekua.**

**Naparrua'ko Lesaka auxa ez da erri itsusia, gure Jaungoikuak emana du euskaldunaren grazia. Nik gaur dakiten pixarra ere ementxen det ikasia, erri onetan jaiua naiz ta ementxen bertan azia. Aita maitea, zor dizut beti orain dakiten guzia.**

**Zenbat egun on pasatu gindun zurekin Lesaka onetan, soñua jotzen eta kantari elkarrekin jostaketan! Erdal izkuntzik ez zen izaten, beti euskaraz izketan, ni soñu jotzen jendearentzat, zu berriz beti bertsutan... Olako pozak bukatu dira, argatik nago penetan!**

**Eskerrak zuri artu ditugu emen guk milla birtute; zuk emandako kontseju onak guretzat indarra dute; ori beñere ez zaigu antzuko bizi geraden bitarte. Pozez beterik egondu ginan zurekin berrogei urte; ama nerekin bizi da eta ez det utziko ill arte!**

**Mundu onetan berdiñak gera aundiak eta txikiak, ta Jaunarentzat berdin-berdiñak naiz beltzak eta txuriak; eriotza bidean degula, il bear degu zuziak. Pepito Yantzi'k bere aitari jarri nai bertso-berriak, Pablo Igantxi nolakua zan jakiteko Euskalerr'i'ak!**

## AITA ITURRATE EUSKAL- DUNA, «DOATSU» BERRIA



Nor dugu berau? Gazte bat, illaren azkenetan Aita Santuak aldaretara jaso. Inoiz esan oi da: «Gaur ere» santuak? Eta zergatik ez? Gure artean ere bai; ez, euskal erria ez dugu santu gabea. Euskalerrri osotik millaka ta millaka euskaldun jo zuten Erroma'ra gertakizun au zala-ta. Geure odolke gazte bat aldaretara jasotze ospakizunari oore ta dedua ezartera. Maitasuna erakustera.

Bizkai'ko Arratia'n, Dima errixkan sortua da Domingo Iturrate Zuberu, 1901'ko Maiatza'ren 11'n.

Domingo Iturrate, amaika seme-alaba izan ziran; Domingo auxe leenengoa. Famili bizkor ta ugari onetatik bi bizi dira oraindik, arreba bat Bilbo'n eta anai bat, praille irukoitza, Kolonia'n mihiolari, «Doatsu» izendatze egun bikain orretan, Bilbo'ko Gotzai Larrea'tar Koldobika'rekin batera, Aita Santuari ospakizunean lagundu ziona.

Aita Domingo txikitatik Jainkoaren bidean jarri zuten gurasoak; etziran zabar ibilli ortan.

Amar urtekin urreratu zan Eukaristi-maira, or-

duko oitura zanez. Amabirekin Sendotza ere arturik. Andik laister, Jainko-deiari erantzun naita, Algorta'ra jo zigun praille «Trinitario» izateko.

Santander'ko «La Bien Aparecida»'n osatu zuen Nobiziadu urtea, 1918'an profesa egiñik. Ondoren Erroma'ra bialdu zuten nagusiak Filosofia ta Teologia ikasten. Ikasle ona agertu zan beti; 1926'an karrera amaitzean, irakasle (Doktor) tituluaz ere jabetua bait zegoen.

Ikasle zala «santu» izen aundia bereganatu zuen. Birtute aundi-zabaleko gaztea zan.

Apaizgaiak ameslari bizi oi dira luzaroan.

Meza berriaren zai. Aita Domingo'k 1925'gareneko Abuztua'ren 9'an kantatu zuen bere Meza berria. Gero animak salbatzera, mixio-lurrera joatke guraria iragarri zien bere nagusei.

Gaixorik zegoen, eta naikun ori etzan loretuko. Beste mundutik, bear bada, izango zuen orren betekuntza osoa: 1927'ko Apirila'ren 7'an, 26 urte bete gabe, Jaunaren grazian il Kuenka'ko Belmonte'n.

Munduan kristau-bizitz eredu izan zan, eta berdin praille-bizitzan ere, ikasle fiñ, Jainko-zale jator, Jainkoak berak ere, zirudianez, laguntzen zion ortan mirariakin.

Au ikusiz, Zerbitzari oni, Santu-maillako omenak emateko lege-bideari asierea eman zitaion. Eta ortarako bearrezko ziran eginkizun guztiak bete ondoren, Urrilla'ren 30'an, Aita Santuak, millaka ta millaka euskaldunen artean Batikano'ko eliz ederra jendez bete-bete egiñik zegoela, «Doatsu» edo «Beato»'en maillan jarri zigun Dima'ko gazte au, gure errazako Jainko-zale au, Aita Domingo Iturrate.

A. ONAINDIA

## EUSKAL-AZTARNAK ISRAEL'EN

Euskalerrria ta Israel, orra bi erri zaar, oso antziñakoak, eta biak elkarren antz aundiak dituztenak. Biak zaarrak, biak txikiak, biak iraunkorak eta setatiak beren nortasunari ta izkuntzari eusten.

Israeldarrak ibilliak dira Euskalerrria'n eta emen bizitzen egonak, oso aspalditik, gaiñera. Gasteiz'en baziren judutarrak eta ez gutxi, baiña geienik Muskaria aldean, Lizarra'n eta Iruña'n izan ziren. Eta zeinzen zintzo ta leialki jokatu zuten XIII'gn. mendean Naparroa'ren nortasunaren alde.

Baiña orain badira euskal-aztarnak ere Israel'en. An bizi diren eta lanik aski egiten duten lekaide ta lekaime euskaldunak bakarrik ez, eta ez dira gutxi. Antxe illobiratua da Otaegi'tar Juan, apaiz gipuzkoarra, Lur Santuak ezagutzera joan eta bertan illa. Eta antxe il zen eta bertan illobiraturik dago Aita Berriatua, euskaltzale franziskotar bizkaitarra.

Jerusalen berrian eta judutar ospetsuei eskeiñitako kaleen artean

bat beintzat, Naparroa'ko bati eskeiñia dago. Ain zuzen ere, aldi ontan ospe aundia eman zaion, «Tudela'ko Benjamin» deitua da napar-judutar ori. Eta oso aintzat arturik daukate an.

Zeaztasun ori an bertan ikusi ta ezagutzeak, zirrara sortzen du euskaldunon biotzetan.

Eta beste gertaera bat, au ere bitxia. Gipuzkoa'ko Ormaiztegi'n egiten dituzten autobusak ikusi ditugu Israel'en eta ez bakarra. Motorrez VOLVO baiña soiñekoa edo etxea, euskaldunek egiña.

An ibilli geran euskaldunok pozik ikusi dugu IRIZAR, izen euskalduna, antxe autobusetan, eberkerazko beste itzen artean. Zer pentsatzen ote dute israeldarrek izen ori irakurtzean?

Orain zortzi bat urte emen ibillizen Ariel Shoval israeldarra, elebitasuna dela-ta antolaturiko biltzarretan, bere iritziak eta ango agintaritzaren izkuntzarekiko jokabideak azaltzen.

An ibilliak dira Etxenike naparra ta beste euskaltzale batzuk, Israel berriak bere izkuntza zaarra zernola piztu, berritu ta indartu duen ikasten.


Alde askotatik begiratuta, erri arrigarria da Israel. Eta euskaldunontzat badu alako erakarpen sakon bat, nolerebait elkarren senide ba'giña bezala elkartzen gaituena.

GAZTANAGA'K



Orra euskera ta eberkera elkarrekin.

# GAUZA BITXIAK



## EMEAK BIAK NOR GOGORRAGOA?

Bagenekien len ere, emakumezko batzuk pizti bildurgarriak direla. Argazkiko au ordea neurri guztien gairikoa da. Leoi emearen agoan bildurrik gabe sartu du burua. Ez dio leoiak leporik moztu. Ez direla lau ankeko piztiak esaten oi den bezain pizti! Izango ote luke leoi orrek burua andrazkoaren agoan sartzeko kemenik?



## TXIMUAK, TXIMUKERIAK...!

Oso txikiak izan bear dute noski tximutxo onen tximukeriak, txiki-txikia bait da bera ere gaixoa. Jaio zenean 28 gramo pixatzen zituen. Gaur, aunditu da-ta!, kilo erdi bat pixatzen du! Iparramerika'n jaio da pixitxo maitagarri au. Argazkian errez ikusi dezakezu bere luzaroa zein den motxa den.

Ona emen bein da berriz gure laguntxo txikia. Begira eiozu astiro bi argazkietan. Neurri-ziriari elduz, batean; bestean, bere jabearen beatzean kokatua. Ez al dauka aurpegi gozoago azkeneko argazki ontan? Tximu-klase ontan, aitak zaintzen omen ditu umeak. Aitak, ez amak. Eta tximu au bazterturik utzi omen zuen bere aitak Aurkitu du ordea nork maiteki zaindua. Begira zein den pozik agertzen zaigun neskatil atsegiñaren beatza besarkatuz. «Txikia, bai; txikia banaiz; baiña, ez naiz tontoa!», esaten digula dirudi.



# NEUTRON-LERKAIA EDO BONBA

Hiroshima gañean atomika-lerkaia (bonba) lertu zanean, berreunmilla lagun baño geiago illak eta Jainkoa'k jakin gaxotu ta elbarri gelditutakoak zenbat izan ziran.

Gertakizun ura zala-ta, makiña bat izbide sortu zan. Batzuentzat billaukeririk audiena zan bitartean, besteentzat guda madarikatu ura bukatzeko ta milloi bat eriotza gutxiago izateko biderik egokiena zan.

Ta ara or, egun gogoangarri aren 35 urte betetzen ziran egun berrean, Ronald Reagan'ek nun adierazten zuen, lerkai ura baño askoz indartsuagoa dan neutron-lerkaia sortzeko lanak egiten asteko agindua eman zuala.

Orduan bezelaxe, milla esamesa sortu dira. Emen eta an kale-agerketak manifestazioak erabaki orren

aurka; noski, gizadia erabat ondartzeko bidea dala ta galerazi egin



bear dala. Egiazko pakea egiteko izan ditekela diotenak ere ba-dira.

Baña zer da neutron-lerkaia? Atomika-lerkaiaren zearo ezberdiña. Onek bere mendean aurkitzen duan guztia, txikitu, birrindu, surik gabe erre, ondatu egiten duan bezela, arek ez du gauzarik txautzen, baño zabaltzen dituen dizdiren bidez, bizia duen guztia jota uzten du. Itxirik dagoen etxe barrura irrati hertz-dizdirak (ondas hertzianas) sartzen diran antzera, neutron-dizdirak edozer gaiaren barrura igarotzen dira, berdinegurra, burnia edo galtzairua izan.

Inguru samarrean aurkitzen diran lagunak, naiz eta tanke barruan egon, burua galdu ta zer egiten duten ez dakitela dira lendarabizi, andik puska batera il da gelditzeko. Bitartean jakiña, tankea baztarra jo ta.

Bosteun metrora, kilometro batera edo bi edo irura dauden lagunak, asti gutxi barru oiek ere il da.

Ta len esan bezela, ez etxe, ez lantegi, ezer txikitu ta ondatu gabe. Beldurgarri benetan.

Askoren iritzia au da: ain kaltegarria izan ditekenez zerbait, nolatan egin arazi? Gizon ori burutik ondo al dago?

Reagan'ek diona berriz au: errusitarrek guda tramankuluak gutxitu nai dituztela diote mingañez, baño eten gabe gero ta geiago egiten ari dira. Oraintxe bertan, guk alako iru tanke badituzte. Zer egin? guk ere beste ainbeste edo geiago egin? ez al da tanke oiek ezerezteko zerbait egitea obe? Orixe da nik agindutakoa.

Onez-onean konpondu ezin danean, indarrean egin bear izan oi dala ta neutron-lerkaia egiteko agindu eman ba'du, errusitarrei ortzak erakusteagatik izan dala.

Errusitarrek aurrez-aurre ipar-amerikarrak izan ez ba'lituzte, zer gertatuko ote zan? Munduaren jabe egin eta diktadurapean danok edukiko ginduzten.

Asmo orixe bera izan zuen Hitler'ek ere, baño kukuak gaizki jo. Berak uste bezela atomika-lerkaia ipar-amerikarrak baño len asmatu izan ba'lu, jaun da jabe egingo zan.

Eta neutron-lerkaia au errusitarrek lendarabizi asmatu izan ba'lute?

**GOROSPE'TAR MIKEL**

## Peru Txiki'ren ateraldiak

Lanik gabe zegon Peru Txiki, eta Iruña'ra joan lan-billa. Lagun batekin billatu zan eta onek esan zion:

–Lanaren billa etorri ba'zera, zoaz Zirko'ra; an emango dizute.

Peru Txiki Zirko'ra dijoa; eta ara eldu ezkerro, nagusiaz galdetu zuan.

–Zer dakizu egiten, galdetu zion nagusiak.

–Nik?, jaten, dio Peru Txiki'k.

–Baña, jaten danok dakigu.

–Bai; baño nik txala oso-oso, ezurak eta dana jaten ditut, dio Peru Txiki'k.

–Ori egiten ba'zenu, lenbiziko sesioan bost milla pezta emango dizkizut, esan zion besteak.



Irratian eta txarteletan jarri zuten berri ori, eta lenbiziko sesioan Zirko'a bete-bete zan.

Peru Txiki'k azkeneko numeroa egin bear zuan, eta an, pista erdian, jarri zuten txala oso ondo erreta. Peru Txiki asi zan jaten, eta amabost minututan jan egin zuan, ezurrik utzi gabe.

Zirko'ko nagusiak esan zion:

–Bigarren sesioan, berriz jaten baldin ba'zenu beste txala, amar milla pezta emango dizkizut.

–Bai, bai; lasai-lasai jango det, erantzun zion Peru'k.

Propaganda eginda, Zirko'a berriz bete-bete zan bigarren sesioan.

Azkeneko numeroan, txala ondo erreta jarri zuten erdian, eta Peru Txiki'k lasai-lasai, amar litro ardo tartean edanda, txala osoa jan egin zuan.

Zirko'ko nagusiak, arriturik, esan zion:

–Berrogei urte Zirko'a dauka dala, eta au bezelako numeroa ez det sekulan ikusi... Eta gañera, Zirko'a beti bete...  
Eta berriz Peru Txiki'ri:

–Ogei milla pezta emango dizkizut, zuretzako lan geiegi ez ba'da irugarren sesioan beste txala jatea.

Eta Peru Txiki'k:

–Izan, ez da lanik; baño, beste sesioa egin bear ba'det, noiz jango naiz ni afaltzera?



# • E R R I Z - E R R I •

## Baztan

### NAFARROA OINEZ 83

«Ikastolak behartsu eta beti neketan dabilta eta ez zuten iraunen euskalzaleen laguntzarik gabe.»

Holaxe mintzatu zaigu Bera'ko Ikastolako irakasle bat. Bai egia borobila Nafarroa'ko Ikastolen egoera erremexa. Bainan neke haundi hioen gainetik dago euskalzaleen kemena eta zaletasuna eta horrek iraunazten baitu Ikastolaren bizia. Gure Ikastolen beharkundeak nolapaitere indartzeko antolatzen dira Biltzarrak eta bestak, jendearen mugiaraztea eta sos biltze. Laguntza ofizialak beti murriz eta holaxe gure Ikastolek ez dute bertze biderik, horrela jokatzera baizik. Nafarroa'ko Diputazioak edo Erakunde ofizialak laguntza osoa ematen ez duten bitartean gu beti eskean. Zenbaitzuk diote, Euskal Herri'ko eskola guztiak behar luketela Ikastolak biurtu, hau da, denak euskararen bidetik. Ametsa balin ba'da ere horrek badauka funtsezko arrazoin bizia.

Igaz bezala Elizondo'n, aurren Bera'ko herrian ospatu da «Nafarroa oinez 83» Iraila'ren 18'gn zorionezko eguna beratarrentzat eta baitaere euskaltzale guzientzat. Ospakizunak ongi antolatuak, ezin hobekiago eta zuzenago gertatuak. Hamar edo hamabortz mila lagun bildu ziren Bera'n Herria hor bildurik, gizon, emakume, haur eta gazte, famili osoak, denak euskal zaletasun bizi batek bultzaturik, Bera'n bilduak. Ikastolak behar duen laguntza eskeintzera etorriak eta denak ahal duten negurrian beren oparia bihotz bihotzez ematera etorri bait dira.

Hor ikusi ditugu jaun ospetsuak, Herri-gizonak, kultura eta herri mailan lana egiten dutenak, langile, nekazari eta herri maitale guztiak, denak euskal zaletasuna erakutsirik. Eguraldi guziz ederra, eguzki dirdiranta zero urdinean, giro egokiagokorik ezpaiginuuen espero. Berriz ere erran dezagun

eguraldi on hori izan dela «Nafarroa oinez» biltzarraren laguntzarik hoberena. Lau kilometroko ibilaldia zoragarria, neke haundirik gabe jendea aisa ibiltzen, tarteka atsedean pixka bat harturik. Han hemenka edan lekuak, dantza saioak eta bertze.

## Filipinak

### ANDRE-MARI

Noskiago, bizi geran tokiko kistar eta eliztarrentzat ari gaitzen egokiago degu. Orrela Andre Mari'ren Jaioteguneko ospakizunak apurtxo atzeratu egin ditugu. Astegorriko egunez jaialdi berexietara zetozkenak gutxiago izango genituen beldurrez, atzeratu ere.

Urte ontako Iraila'ren amaikagarrrena, igande. Goizeko bederatzitan Sendotza Ikurtona artzalleak izan ditugu: guztira iruregeita bi. Urtero biltzan gaizkigu. Gure elizara ia iri guztikoak azaltzen zaizkigularik, mutil gazte eta neskatxa mardul eder ere ikusi nituen. Izan ere txinatarrentzat bakarrik ari ba'giñake, letozkenak urriago izango. Ikusiarren ikusiz auxe uste degu: txinatarrak bertakoen itzalera pozikago etortzen zaizkigula. Gantzu deuna bekokitik legortzen neroni ibili nintzan.

Arratsaldean, auzoko etxarteetan barna ibildeuna. Urtean bein bakarrik izaten degu. Pilipin auetan ibildeunak asko maite dituzte, batez ere Aste Gurenez, Ostiral Aundiz, IESU'ren Nekaldiko irudiak ateratzen dituztela.

Oraingo Iraila'ren amaikagarren arratsaldean, guk ere ibildeuna izan degu. Ainkaxkarra ere ez: gizatsuago izanez, pozikago giñan, arean. Onelaxe izan zan:

1) Ertzaiñetako bi aurrelari; orrela, legean ibiltzea gertatzen. Emen, Ipar-Amerikarren kutsa bai indarrean eta legepean ibiltzea txit maite. 2) Argizaiak eta Gurutze Deuna: iru mutiko, oiturazko elizatorra berri-berriz. 3) Aingerutxoak, geienak nexkak. 4) Gurditxoan eta txito apain IESU-Biotza'ren irudia. 5) Otoitz-Bialguntzako bazkideak, adiñeko emakumeak. 6) Agurtza Deun esaleak; zuzendariak gurditxoan ozengailuz. 7) Otoitz-Bialguntzako bazkide gazteak. 8) Pilipin-Txinatarren gaztedi-bazkuna. 9) Ikastetxeko neska-mutillak; bos-teundik gora. 10) Ikastetxeko agintari eta irakasleak. 11) Neskatxa aziagoak; banaka-banaka eta apainduri nabarrez. 12) Ama Birjiñaren irudi apaña. 13) Eliza-lanetako arduradun talde berezia. 14) Apaiz jaunak. 15) Sinistun soillak; geienak, emakumeak; gazteak, gutxiago; gizasemeak, urri.



Adiskidetzko baten argazkia bidali digu Patxi Etxeberria, 85 urteko jesulagunak, berak ainbeste maite duen Urrutiko Sortaldetik

Ibilian ortxe-ortxe ordu betekoa izan oi da: oraingoan alakoxe euribeldurra ere bazuten: ttantto batzuk asi zirala bixkorrago ibili zitzaizkigun. Guztiak edo geienek euritakoa galtzarbean eta neskatxa aziak, beintzat, beren soñeko nabarrek bustitzerik ez zuten nai. Ibiltze osoa kale-erdizka, alegia, beti ezkuitik; beste aldetik oñezkoak eta gurtariñak nai zuten uxtuan aizuz ezaten.

Guztia zeoro adirazten ez ba'det, berri-emalle narratxaren zatzu liteke. Oraingoan ez naiz ibildeunean sartu. Adiña ere badedala; gañera, bat baño geiago ez zala joango, eta aukera alakoa zutenez, beren aitorzatzak ontzera agertu zitezkeela, eta olako orientzat aukera egokitu nai.

**ETXEBERRIA'TAR PATXI (s. j.)**

## Iruña

### INTZA'TAR AITA DAMASO'K 97 URTE BETE ZUEN EGUNEAN

Paseo eder bat dugu Iruña'tik Kaputxinotara; batez ere gu euskaltzaleok maiz egin bearuko genukena. Antxe, aurkituko dugu pakea suspertzen duen gizon argi bat: Au, Intza'tar Aita Damaso dugu.

Bere bizi luzea zuzentasunean onarriturik dauka, bait jorratua ere ekintza eder ontan.

Aratx eldu bezin laster atera zaigu Aita Damaso, ori bai, arras pozik, erranez:

—«Egunero zuen bisitan esperoan nintzen, eta Jangoikoari eskerrak emen zarete». Eta ala kontatzen dizkigu bere bizitza:

—«Bista eta belarriak motel dauzkat, bestela oraindik burua ongi eta argi

nere otoitzak egiteko, eta ola kontent nago Jainkoari berarenganako denboraga geiago uzten didalakoz».

Urrillak 19: Aita Damaso'k 97 urte bete ditu; gure zorionak!

Iruñako «*Erreketete Irrati*» delakoan Mikel Bujanda'k opa zizkion bereak eta euskaltzaleenak ere, Aita Hilario Olazaran'en, bere ain adiskide eta maite zuenaren musika eskeiniz. Gero, Mikele'k berriz Aita Damaso'ren ekintza guztiak agertuz: Euskaltzaindi'ko fundatzailea, «*Zeruko Argia*» aldizkaria, «*Kristau Ikasbidea*», «*Erriarendako Liturgia*», etab. Gero, ogeitamar urte pasa zituen Txile'n, eta an zelarik erren konbentua eta bere euskerazko lanak.

Onara etorri ta atera zuen «*Nafarroako Euskal Esaera zarrak*», denek irakurri bear genuen liburua, gure oinarri eta bizia obgi eaezagutzeko.

Zorionak denarengatik, Aita Damaso. Laister arte! **Tx.**

## Igantzi

### NAZIO-ARTEKO ARTZAI-TXAKURREN TXAPELKETA IGANTZI'N

Aurten IV'gn. aldiz Igantzi'n egin dute Nazioarteko Artzai-txakurren Txapelketa. Eguraldi ederrez eta milla bat lagun begira zirela.

Zortzi artzain agertu ziren beren txakurrekin. Eibar, Urdazubi, Amaiur, Banka, Askain eta Abadiño errietakoak ziren.

Irabazle edo txapeldun, Eibar'ko Arrillaga'tar Jose Antonio, bere «*Pastor*» txakurrarekin: 243 puntu lortu zituen bere lanean.

Bigarren, Amaiur'ko Etxeberria'tar Patxi, bere «*Pintxe*» txakurrarekin. Nafarroa'ko Txapela irabazi-berria zuen eta Oñati'n ere Euzkadi'ko Txapeldun gertatua, baiña oraingoan ez zitzaizkion ongi atera gauzak. Epai-maikoek, 211 puntu eman zizkioten.

Irugarren, Abadiño'ko Urien'dar Xabier «*Argi*» bere txakurrarekin, eta 202 puntu.

Laugarren, Urdazubi'ko Arozarena'tar Anjel, «*Labri*» bere txakurrarekin eta 120 puntu.

Bosgarren, Amaiur'ko Istilart'dar Jose Mari bere «*Eder II*» txakurrarekin eta 107 puntu.

Seigarren, Arrate'ko Atxa'tar Andres bere «*Txato*» txakurrarekin eta 106 puntu.

Zazpigarren, Askain'go Miura'tar Josef bere «*Lika*»'rekin eta 45 puntu.

Azkenik, zortzigarren, Banka'ko Biddart'dar Jean Mixel bere «*Eder I*» txakurrarekin eta 40 puntu.

Igantzi'ko «*Biltoki*» Elkartekoak ziren antolatzaile. Sarreretan bildu zituzten diruak, artzaiñen kasuetarako izan ziren eta antolaketa zati bat ordaintzeko. Zorionak antolatzaileei ta Txapeldunari bereziki.




Eibar'ko Joseantonio Arrillaga artzai Txapelduna, Igantzi'ko Alkate Jaunaren eskuetatik irabazitako Sari-Ontzia artzekoan (MENA argaz.)

**TX.**



MENA'ren argazki eder ontan, Igantzi'ko IV'gn. Nazio-arteko Artzai-Txakurren Txapelketan sartu ziren artzai eta txakurrak



### Atxiki bai; atxiki ez

Guk «atxiki» esaten dugu. «Atza», beatza da euskera zarrean. Atxiki egitea beraz, etzakín, beatzakin, zerbait arrapatzea da.

Bizkai'n eta baita Gupuzkoa'n ere Azpeiti'tik aruntz, «TZ» ori «TX» biurtzen dute. Orregatik, «atxiki» esan bearrean «atxiki» esan oi dute.

\* \* \*

Aspaldi ontan pelotazale guztien ezpañetan dabil «atxiki» zorioneko ori. Pelotan «atxiki» egitea, pelota beatzen artean arrapatzea da; eta orrela arrapaturik, beatzen artean gelditzea; eta pelota geldirik dagoela, eskumuturra okertuz, eskua atzera botatzea, eta baita besoa bera ere pixka bat, gero atzetik aurrera biribiziko ziztuz pelota ormara botatzeko, edota goxo-goxo eta geldi-geldi pelota txapa-gaiñean illik uzteko.

\* \* \*

Atxiki egite ori ez da gaurko pelota-jokuan. Euskalerrí'an bai. Euskalerrí'an berria da. Emen ez zan len atxikirik gure plazetan egiten. Baiña bai Errioxa'n eta Gaztelerrí'an. Ango pelotarien «besarpez», «a sobakillo» esan oi dute berak, jokatzeo erak berak badu atxikiaren itxura galanta, naiz egi-egiz atxiki izan ez.

Joan den mendean, Errioxa'ko pelotariak Gipuzkoa edo Bizkai'koen aurka jokatzen ba'zuten, bentajaxoren bat ematen zieten errioxatarrek emengoei, egiten zuten atxikiaren ordaiñez.

Bentaja aundiak bait ditu atxiki egiten duenak egiten ez duenaren aldean. Lotsaturik ikusi dugu Urril ontan bertan, Gasteiz'ko Mendizorratza deritzan plazan, nola irabazi zion atxiki utsaren bidez IV'gn. Bengoetxea'k bera baiño obeki jokatzen ari zen bigarren II'gn. Bergara'ri. Eta Bengoetxea orrek baiño atxiki lotsagabegoa egiten duten pelotariak



Pelota jokuan sartu den «atxiki» orri buruz garbia dugu Oreja pelotari naparra

badira. Laugarren Gartzia-Ariño adibidez. Irugarren maillako pelotaria izango litzake au atxikia kenduko ba'litzaio.

\* \* \*

Atxiki egiten duenak izugarrizko bentajak ditu:

–Eskuko-miñik nekez egiten zaio. Goxo-goxo beatzekin gelditzen bait du indarrrik gogorrenarekin datorren pillota.

–Pelotak ez dio eskutik aldegingo. Arrapatu egiten bait du! Arrapatu. Ez, jo.

–Pelota beste iñork baiño indar geiagorekin erabiltzen du, atzera boteta dauzkan beso eskuak egiten duten uztai edo arkuaren bidez. Abailla biurtzen du atxikilariak bere besoa.

–Sakea itzultzerakoan, menderatua izatetik menderatzalle izatera igarotzen da atxikigillea. Beatzen punttekin errez gelditzen bait du, poliki-poliki, eskua eta besoa atzeruntz eramanez, zizturik gorrienarekin datorren pelota. Eta ondorean, ziztu aundiagoarekin botatzen bait du ormara orrela gelditurik dauken pelota ori, atzeraturik zeuken besoa aurreruntz gartsuki eramanez.

–Beste iñork arrapatuko ez litukean pelota paseak arrapatzen ditu. Ez bait du pelota jotzen; geldi egiten bait du!

Orregatik, naitanaiezkoa du gure euskal-pelotak gaitz ori beregandik astintzea. Ta ori erabaki dute gure federazioek. Urtebeteko epean frontoietatik «atxiki» oro uxatzea.

ERASO

## NAPARROA

Campion'en esatera, auxe da Napparroa:

*«Antziñako ta bertan sortutako enda bat, euskal enda, du oiñarri Napparroa'k. Erri berezi batek osotzen du, nappar-erriak, alegia. Gizaldien joanean eta bere mugetatik kanpora, erritasun berezi ta berezkoa azaldu duena, ain zuzen ere Auñamendi'ko Erreinua izanik. Kondairan aurrera bizirik jarrai bear zuen, eta zor ziztaion erri oni bere iraupena...»*

*Bizitza ori aurreratzeko, osotu ta aberasteko lagungarri izan den guzia, on eta txalogarritzat artu izan dut. Baiña, aultzera, zatitzera, desegitera, naiz desegiteko arriskuan jartzera zetorren guzia, txartzat eta kaltegarritzat jo izan dut biotz osoz.»*

Campion Irakaslearen itz auetan ez ote dugu Napparroa'ren nortasuna eza-gutzeko giltza?



## «EUSKO IKASKUNTZA»'K IX'GN. BATZARRA



Eusko Ikaskuntza'k IX'gn. Batzarraren Mai Nagusian, Ollora arabarra, J. M. Barandiaran gipuzkoarra, Makua bizkaitarra ta Etxenike naparra

Mende onen asierako urteetan sortu zuten «Eusko Ikaskuntza»

### SUMARIO

1: **UDAZKENA.** Otoño, hermoso, rico, alegre, imagen de la madurez del hombre.

2-3-4: **EUSKAL ERRIKO LEIOA.** Ventanal de Euskalerría. Noticias de cerca, de lejos y... del más allá. Coros de Etxarri y de Elizondo, triunfadores; más sobre las riadas; Walesa, «traidor» y Premio Nobel de la Paz; Felipe González con el Papa; dicen que Dios existe...

5: **ACIDO URICO:** Cosa de hombres. El mal del buen comer, MEDIKU ZAARRA.

6: **X. ZUBIRI, FILOSOFO AUNDIA.** Un vasco a quien Einstein elogió, ASTEKARI.

7-8-9: **BERTSOLARIA.** Hoy, PABLO YANTZI, el lesakarra. EGI'TAR BI analiza la sangrante y polémica composición «La Guerra de Africa». Versos de **Pepito Yantzi**, el hijo. Y de **Munia-tegi**.

10: **DOMINGO ITURRATE, «DOATSU» BERRIA.** Un vasco de nuestro siglo a los Altares, A. ONAINDIA.

**EUSKAL AZTARNAK ISRAEL'EN.** Dos viejos pueblos obstinados en vivir y en hablar su lengua propia, J. GAZTAÑAGA.

11: **GAUZA BITXIAK.** Los monos, claro, «monadas»; pero los hombres y algunas mujeres, animaladas: vean, vean.

12: **NEUTRON-LERKAIA.** La pavorosa bomba, juguete de la loca carrera de las armas, GOROSPE'TAR MIKEL.

**PERU TXIKI,** que no para ni en la jubilación, ni en el paro.

13-14: **ERRIZ-ERRI.** Por los pueblos. BAZTAN, el «Nafarroa oinez 83» de Bera, M. Izeta; FILLIPINAS, donde nuestro Extremo Ausente -Patxi Etxeberria- anda en protocolaria procesión; IRUNA, «Tx»: los 97 claros años del Padre Dámaso de Inza, el Patriarca de Euskaltzaindia; IGANTZI: IV Campeonato Internacional de Perros de Pastor, «Tx».

15: **KIROLAK.** Cosas de la Pelota: el «atxiki». Un abuso introducido, ERASO.

16: «EUSKO IKASKUNTZA»'K, IX'GN. BATZARRA. Ricas aportaciones a la Cultura Vasca en el IX Congreso de la prestigiada Entidad.

elkarte jatorra, ain zuzen ere Euskalerrí'ko LAU Aldundien babesean. Beraz, Naparroa ere tartean izan zen Elkarte agurgarri orren sorreran eta geroago ere bai.

Aspaldi Batzar aundiak egin ondoren, ixillean eta zokoratuta egon da urte luzeetan: gudaldian eta ondorenean. Gauzak onela, 1978'an egin zuten Billera nagusi bat, Oñati'n ain juxtu ere. Leen lpar-Euskalerrí'an egin bear izan dituzte Batzar batzuk, Miarritze'n ain zuzen.

Oraingoa Bilbao'n izan da ta aundikiro eratu ta ospatua, gainera. Asierako ospakizunean, Lendakari jaunak agertzerik ez zuen izan, baiña orde, an mintzatu zen Etxenike naparra, Eusko Jaurleri-tza'ko jaun argia. Elkartearen Buruden Barandiaran, Araba-Bizkai-Gipuzko'etako Aldundien buruak ere an ziren, beste jaun ospetsu askoren aurrean.

Garrantzi aundiko itzak esan zituen Etxenike jaunak:

«Atzo bezala, gaur ere guztiontzat bearezko eginkizuna da, nork bere erriarengana nako maitasuna ta jakinduriaren sakontasuna ongi elkartzan jakitea.

Euskalerrí'an eta bertakoetan oiñarriturik, mundu zabalekoak ezagutzera ere zabalduz jokatu bear dugu euskaldunok, jakintza ta kulturaren bidez gizakiak eta erriak beren egiazko buru-jabetzaz ornitu ta aberastearen billa, indarkeriak betiko oineratuz».

Gai ta arazo askori buruz mintzatu ziren izlari trebe asko, tartean naparrak ere ez ziren gutxi.

Naparroa'ri buruz ere gai asko azaldu ziren mintzaldietan eta idaztietan. Adibidez: Naparroa'ko Cortes eta muga-zergak, Liberalak eta erregezaleak Iruña'n, Naparroa'ko Aldundia ta beste iru Aldundien artu-emanak, Sakana'ko burdiñolak XIX'gn. mendean, eta geiago ere bai.

Beste mintzaldi sakon eta oso bitxi bat aipatu bear dugu emen: «Los carlistas y la defensa del Euskera» Bordeaux, edo, Bodel'eko Unibersidadean irakasle den Garmendia'k egiña. Gauza arrigarriak azaldu ta argibidetu zituen.

«Euskalerrí osoa liberalismoaren kutsuetatik garbi gordetzeko, Euskeraren alde jokatu zuten karlistek Naparroa'n, erri-erriaren giroari jarraituz.

Karlistek bete-betean Euskeraren alde jokatu zuten Naparroa'n, beren nortasunari sendo eusteko bidea orixe zela ikusten zutelako. Beste lurraldetako liberalak ez bezalako giza-talde berezia zirela oartu ziren eta orri garrantzi aundia eman zioten. Orrela, edozein jaun aipatzen dutenean, beti esaten dute karlistek, euskeraz baldin ba'daki, euskalduna dela, eta bestela erdal-dun dela».

Eta gauza auek ez dira oraingo txoro batzuen gauzak. Tamalez, gerora beste moduz jokatu izan dute, ordea, karlistek eta gainera-koek.

Poztekoa da, bai, «Eusko Ikaskuntza» Elkarte ospetsu orren berpiztea. Jarrai dezala luzaroan kultura-lan aundiak burutuz.

Azken-batzarrean, jaun auek jarri zituzten karguetan: Naparroa'rako lendakari-ordea, Jimeno Jurio'tar Jose Mari ta Bizkai'rako Mantelrola'tar Ander. Guztien buru edo lendakari, berriz, ostera ere Barandiaran'dar Jose Migel aundia.

Barandiaran'ek egin zuen azken-mintzaldia:

«Jarraitu aurrera ere etsi ta aspertu gabe. Baiña, ametsak egiñez bakarrik ez: ikerketan sakonduz eta ikusitakoen gainean oiñarrirituz iritziak. Lenengo, beraz, oiñez ibilli ta gero eragin buruari bere lana egitera».

